



## Hau da aste honetako euskararen pilula!

### "asunto" euskaraz, nola?

Gaztelaniazko **asunto** euskaraz, orokorrean, **gai**, **kontu** edo **afera** esaten badugu ere, epaitegietan izan ohi duen adierari begiratuta, **auzigai** erabiltzen da terminologia juridikoan.

- **asunto > auzigai**

Baina, kontuz, ez nahastu "auzigai" eta "auziaren gauza":

- **cosa litigiosa > auziaren gauza**

### ADIBIDE BATZUK

- "Situación procesal del **asunto**." > "**Auzigai**aren egoera prozesala."
- "Tener interés directo o indirecto en el **asunto** de que se trate" > "Zuzeneko edo zeharkako interesa izatea kasuan kasuko **auzigai**an"
- "Artículo 265. Documentos y otros escritos y objetos relativos al fondo del **asunto**." > "265. artikulua. **Auzigai**aren funtsari buruzko dokumentuak eta bestelako idazki eta objektuak"
- "Competencia. En aplicación del artículo 45 y 52.1.1º de la LEC, es competente para conocer de este **asunto** el Juzgado de Primera Instancia al que me dirijo por ser éste el correspondiente al del lugar donde se encuentra la **cosa litigiosa**." > "Eskumena. PZLren 45. eta 52.1.1 artikuluei jarraikiz, **auzigai** honetaz arduratzeko eskumena zuzentzen ari natzaion lehen auzialdiko epaitegiak dauka, **auziaren gauza** dagoen lekuari dagokiona baita."
  - "En los juicios en que se ejerciten acciones reales sobre bienes inmuebles será tribunal competente el del lugar en que esté sita la **cosa litigiosa**." > "Ondasun higiezinaren gaineko akzio errealak egikaritzen diren judizioetan, **auziaren gauza** dagoen tokikoa izango da auzitegi eskuduna."

### ITURRIA

- [Epaitegietako lexikoa eta eredu judizialak](#)
- Epaibar
- [Euskalterm](#)
- Euskaltzaindia (2018). Euskara Batuaren Eskuliburua (EBE)